



Javier Bikandi Aranzabal
Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko zuzendaria
Funtzio Publikoko Sailburuordetza
Herri Administrazio eta Justizia Saila

Jaun hori,

Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan martxoaren 31n, euskaraz eta gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Herri Administrazio eta Justizia Saileko Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Euskal Administrazio Publikoaren Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gainera eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10.2 artikulua xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du bere autogobernu erakundeentzako antolaketa, araubide eta jarduerak gaitan, Estatutuko arauen esparruan. Halaber, bakarreko eskumena du euskal zuzenbidearen berezitasunen eta hemengo antolaketa bereziaren haritik datozen prozesu arauak eta administrazio-jardunbideari zein ekonomia-administrazioari dagozkion arauak emateko (10.6 artikulua), eta euskal sektore publikoa arautzeko (10.24 artikulua).

Eskumen horien babesean, orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bitartez Euskal Administrazio Publikoa arautuko da.

Lege Aurreproiektuaren Atariko Tituluak “Euskal Administrazio Publikoa” du izenburu, lehenengo kapituluaren xedapen orokorrak jasoz (1-3 artikulua), eta bigarren kapituluaren antolamendu instituzionala jorratuz (4-5 artikulua). Hasteko, 1. artikuluan

arauaren xedea finkatzen da, Euskal Administrazio Publikoaren antolamendua eta funtzionamendua arautzea alegia, edozein delarik ere hura pertsonatzeko modua. Legearen ondorioetarako, Euskal Administrazio Publikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa da: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, haren Administrazio Institutuzionala eta hura osatzen duten erakunde instrumentalak.

Aurreproiektuaren I. Tituluak “Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta Institutuzionala” du izenburu, lehenengo kapituluan egitura lantzen da (6-14 artikulua), eta bigarren kapituluan antolamendua (15-32 artikulua).

Aurreproiektuaren II. Tituluak “Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren osaera eta haren koherentzia” du izenburu. Lehenengo kapituluan sailkapena eta printzipioak jasotzen dira (33-35 artikulua), bigarren kapituluan erakundeak eratzea eta haien araubide juridikoa (36-45 artikulua), hirugarren kapituluan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoaren antolamendua aldatzen duten inguruabarrak (46-50 artikulua), laugarren kapituluan Administrazio Orokorren eta sektore publikoko erakundeen arteko harremanak (51-55 artikulua), eta bosgarren kapituluan langileen erregimena jasotzen da (56-60 artikulua).

Aurreproiektuaren III. Tituluak “Euskal Administrazio Publikoaren funtzionamendua, herritarren zerbitzura egoteko” du izenburu, eta lehenengo kapituluan xedapen orokorrak jasotzen dira (61-62 artikulua), bigarren kapituluan politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa (63-77 artikulua), eta hirugarren kapituluan administrazio elektronikoa eta herritarrentzako arreta (78-83 artikulua).

Aurreproiektuaren IV. Tituluak “Euskal Administrazio Publikoaren gardentasuna” du izenburu, eta lehenengo kapituluan Administrazio Publikoaren gardentasuna lantzen da (84-86 artikulua), bigarren kapituluan publizitate aktiboa eta datuen irekiera (87-96 artikulua), hirugarren kapituluan informazio publikorako irizpidea (97-104 artikulua), eta laugarren kapituluan informazio publikora iristeko eskubidea erabiltzea (105-110 artikulua).

Aurreproiektuaren V. Tituluak “Herritarren parte-hartzea eta parte hartzeko prozesuak” du izenburu, 111 eta 121 bitarteko artikulua bilduz. Azkenik, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzailea eta azken xedapena daude.

Aipatzekoa da Lege Aurreproiektuaren ondorioz indarrrik gabe geratuko direla hauek: Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren III. titulua; eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuari martxoaren 1eko 6/2012 Legearen bidez erantsi zitzaion xedapen gehigarri bakarra.

Bestalde, orain aztergai dugun Lege Aurreproiektuaren testuan badago hizkuntza aipamenik:

-Antolakuntza- eta funtzionamendu-printzipioak ezartzen dituen 7. artikulua hirugarren paragrafoaren f) idatz-zatian jasotzen denez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan eta haren sektore publikoan egitura komunak definituko dira, besteak beste “euskara” arloa bereiziz.

-Euskal Administrazio Publikoarekiko harremanetan herritarrek dauzkaten eskubide eta betebeharrei buruzko 62. artikulua hiru garren paragrafoaren g) idatz-zatian jasotzen denez, herritarrek Euskal Administrazio Publikoa osatzen duten subjektuekin dauzkaten harremanetan hizkuntza-koofizialtasuna izateko eskubidea dute, indarrean dagoen arautegia araberak, eta administrazio onerako eskubidearen barruan.

-Publizitate aktiboaren arloko obligazioak ezartzen dituen 88. artikulua hiru garren paragrafoan jasotzen denez, legearen arabera gardentasun betebeharrak dituzten subjektuek behar diren bitartekoak ipiniko dituzte, batez ere elektronikoak, eta informazioa guztiz eguneratuta eta erraz eskuratzeko eta ulertzeko moduan egotea bermatuko dute, baita gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egotea ere, indarrean dagoen legediak ezarritako moduan.

-Erregelamenduak egiteko ekimenak bultzatzeko eskubidea arautzen duen 119. artikulua zortzigarren paragrafoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak ziurtagiria jasotzen duenean, zeinaren bidez egiaztatuko baita 8/1986 Legeak eskatzen duen sinadura-kopurua lortu dela, horren berri emango dio herritarren ekimenaren xedeko eskumenak dituen sailari, jaso eta hilabeteko epean ebazpena eman dezan izapidetzen hasteko agindua emateko, Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikulua eskatzen den gutxienezko edukiaz. Ebazpena eman eta gero, testua bi hizkuntza ofizialetara itzuliko da, itzuli behar bada.

Egokiak dira hizkuntza aipamen horiek, eta bat datoz indarrean dagoen hizkuntza araudiarekin. Alabaina, eskuarte dugu Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin hobea izan dezan, ondorengo iradokizunak egiten ditugu:

b.1- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 6. artikulua xedatzen da euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza izanik, hizkuntza ofizialaren izaera duela gaztelaniarekin batera, eta herritar guztiek dutela bi hizkuntzak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea. Jarraian, artikulua berean, autonomia erkidegoko erakunde komunak esku uzten da bi hizkuntzen erabilera bermatzeko eta haien ezagutza ziurtatze aldera neurriak hartzeko eta bitartekoak jartzeko ardura.

Artikulu horren babesean, Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak euskara eta gaztelaniaren erabilera arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean, batez ere herritarren hizkuntza eskubideak eta herri administrazioen hizkuntza betekizunak zehaztuz.

Gauzak horrela, uste dugu Euskal Administrazio Publikoa arautuko duen Lege Aurreproiektuan hizkuntza adierazpen bat egon beharko litzatekeela, euskara eta gaztelania euskal herri administrazioaren eta bere sektore publikoaren hizkuntza ofizialak direla esanez eta herritarrekiko harremanetan bien erabilera bermatuz.

Zentzu honetan, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 97.1 artikulua adierazten da euskara eta gaztelania direla euskal herri administrazioetako hizkuntza ofizialak, eta bien erabilera bermatuko dutela barne eta kanpo harremanetan. Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko herri

administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 1.1 artikulua daukagu.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren 7. artikuluan (Antolakuntza- eta funtzionamendu-printzipioak) paragrafo berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Euskara eta gaztelania dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren sektore publikoaren hizkuntza ofizialak, eta bien erabilera bermatuko dute herritarrekin dituzten harremanetan.

b.2- Aurreko puntuan adierazitakoarekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak eta haren sektore publikoa osatzen duten erakundeek neurriak hartu behar dituzte herritarren hizkuntza eskubideen erabilera ahalbidetzeko, Autonomia Estatutuaren 6.2 artikuluan eta Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (5.3, 6.1, 14. artikulua) adierazten den bezala. Uste dugu neurriak hartzeko betekizun horrek bere isla izan beharko lukeela Euskal Administrazio Publikoa arautuko duen Lege Aurreproiektuan.

Beraz, Lege Aurreproiektuaren 2. artikuluan (Helburuak) bigarren paragrafoan idatz zati berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Neurriak hartzea, herritarrek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko eta haren sektore publikoarekiko harremanetan dituzten hizkuntza eskubideak bermatzeko, eta horretarako, politika publikoak garatzerakoan euskararen erabilera zerbitzu eta lan hizkuntza gisa areagotzea.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko apirilaren 15ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria¹

¹ Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria ez egoteagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera